

Bezeroarekiko harremanak

Bezeroarekiko harremana zaintzea oso garrantzitsua da, enpresa baten helburuetako bat da eta. Oso interesgarria litzateke bezeroa gustura egotea beren ondokoei produktua gomendatzeko. Bezeroari zerbitzu egokia eskaintzeko garaian, funtsezkoa da, kalitate onekoa izatea eta bezeroari eskaintzen zaiona gogokoa izatea.



Nabarmenki, bi zerbitzu mota eskaintzen ditugu: Lehenik eta behin, autozerbitzua eskaintzen dugu, web guneak berak eskaintzen duen zerbitzua; eta bigarrenik, laguntza pertsonala eskaini egiten dugu bezeroa arazoren bat izanez gero, horri aurre egiteko.

Ez hori bakarrik, gure produktuarekiko fideltasuna mantentzeko, web gunea eguneratuko dugu, hau da, momentuko pelikula, musika, telesailak eta abar gauza ezberdinak ipiniko ditugu.



Startinnova proiektua

Bezeroa gurekiko harremana sustatzeko edo motibatuzeko, hiru elementu nabarmen abian jarriko ditugu: Alde batetik, bezero potentziala lortu, bestetik, ohiko bezeroak mantendu eta azkenik, mozkinak maximizatzeko salmenta kopuruaren hazkundea lortu.

